

## **2021EKO UZTAILAREN 28KO OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeita bateko uztailaren hogeita zortzian.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo..

Erkuden Agirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Iñaki Zabalo Echezarreta.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:00etan

**AMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

### **GAI ZERRENDA:**

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2021eko apirilaren 28ko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**

Aipaturiko akta aurkezten da Bilkura honetan onartzeko.

Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu da.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
  - 2021eko 17 zenbakitik 29 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (Ebazpenen bitartez onartuta dauden 3.000,00 eurotik gorako fakturei dagokienez, informazio zehatza azken puntuan emango da)

- **Murgiondo baserria inguruan lursailen trukaketa egiteko kontratua eta desafektazio espedientea hasierako izaeraz onartzea.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

Murgiondo baserria berritzeko proiektua exekutatu nahi dute interesatuek, eta alde aurretik eraikin horrek dituen hezetasun arazoak konpondu, horretarako ezinbestekoa izan da eskoilera bat eraikitzea Zeraingo "oinez-bide" aldera doan bide publikoaren zati bat okupatuz, eta horretarako Udalari eskatu zioten bide publikoa ordezkatzeko aukera aztertu zezan, eta eskoilera proiektua aurkeztu ondoren, 23-2021 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez legeztatze eskaera onartu zen, beti ere kontratu hau sinatzeko baldintzapean.

Alderdiek egon daitezkeen aukerak aztertu ondoren, ikusi dute Zeraingo "oinez-bide" publikoa ordezkatzeko aukera badagoela, eta gaia sakon aztertu ondoren adostu dute soluzio bat biezat baliogarria dena.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Adostutako guztia hitzez-hitzez honako hau dela:

## **MURGIONDO BASERRI INGURUAN LURSAILEN TRUKAKETA EGITEKO KONTRATUA.**

Mutiloan, 2021eko uztailaren 28an

### **BILDU DIRENAK:**

**ALDE BATETIK:** Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako Udaleko alkatea, eta ekitaldi honetarako 2021eko uztailaren 28ko Udal Osoko Bilkuran behar bezala baimenduta.

**BESTETIK:** Javier Alustiza Urkiola, adinez nagusia 72468981Y N.AN. zenbakiduna eta Aintzine Egea Gonzalez 72462276V N.A.N. zenbakiduna eta helbidea Mutiloako Murgiondo baserrian dutena (aurrerantzean interesatuak).

Ekitaldi honetan parte hartzen duten bi alderdiek kontratu hau sinatzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri eta horretarako ondorengo,

### **ADIERAZI DUTE:**

#### **LEHENENGOA:**

Murgiondo baserri ingurutik Zeraingo aldera doan "oinez-bide" deituriko bide publikoa igarotzen da, bidea Mutiloako Udal ondasun publikoko inbentarioan jasota dago.

#### **BIGARRENA:**

Murgiondo baserria berritzeko proiektua exekutatu nahi dute interesatuek, eta alde zuzenetik eraikin horrek dituen hezetasun arazoak konpondu, horretarako ezinbestekoa izan da eskoilera bat eraikitzea Zeraingo "oinez-bide" aldera doan bide publikoaren zati bat okupatuz, eta horretarako Udalari eskatu zioten bide publikoa ordezkatzeko aukera aztertu zezan, eta eskoilera proiektua aurkeztu ondoren, 23-2021 zenbakidun Alkatetzaren

Ebazpenaren bitartez legeztatze eskaera onartu zen, beti ere kontratu hau sinatzeko baldintzapean (kontratu honi 23-2021 Alkatetzaren Ebazpena atxikitzen zaio).

### **HIRUGARRENA:**

Alderdiek egon daitezkeen aukerak aztertu ondoren, ikusi dute Zeraingo "oinez-bide" publikoa ordezkatzeko aukera badagoela, eta gaia sakon aztertu ondoren adostu dute soluzio bat bientzat baliogarria dena.

### **LAUGARRENA:**

Kontratu honi Neurtu topografi enpresak eta Kele Lasa arkitektoak egindako plano hauek atxikitzen zaizkio:

- 1.- Murgiondotik Zeraingo oinez-bide aldera doan bide publikoaren gaur egungo egoera deskribatzen duen planoak.
- 2.- Interesatuak okupatu beharreko bide publiko zatia deskribatzen duen planoak (desafektatu eta interesatuen jabetzara pasatuko dena).
- 3.- Ordezkapen bezala, bide berria egiteko lursaila deskribatzen duen planoak (Mutiloako Udalaren jabetzara pasatuko dena)
- 4.- Bide publikoa berria nola geratuko den deskribatzen duen planoak.

### **BOSGARRENA:**

Dagozkion elkarrizketak egin ondoren, alderdiek lursailen trukaketa egiteko adostasun batera iritsi dira; hori dena kontuan hartuta honako hau,

### **HITZARTU DUTE:**

### **LEHENENGOA:**

Mutiloako Udalak interesatuei adierazpeneko laugarren artikuluko 2 zenbakidun planoan deskribatutako bide publikoaren zatiaren jabetza pasatzeko behar diren pausoak emateko konpromisoa hartzen du, besteak beste, lehenbailehen 1372/1986 Toki Entitateko

Ondasunen erregalamenduaren 6. artikuluan aurreikusitako desafektazio prozedura gauzatzen hasiko da. Behin eta espedientea bukatzen denean eta bide berriaren egokitze lanak amaituta daudenean, trukaketa behin-betikoz gauzatuta geratuko da.

#### **BIGARRENA:**

Interesatuak, adierazpeneko laugarren artikuluko 3 zenbakidun planoan deskribatutako lursaila Udalaren jabetzara pasatzeko konpromisoa hartzen dute, eta bide publikoaren ordezkari lanak beraiek eraginda egin behar direnez, bide berria egokitzeko lanen kostu guztiak bere gain hartzen dute. Behin eta lanak amaitzen direnean trazadu berriarekin plano berria Udal bide publiko inbentarioan jasoko da.

#### **HIRUGARRENA:**

Dokumentu hau sinatzen denetik aurrera, bide publikoaren ordezkari lanekin hasi ahal izango dira eta urte bukaerako amaitu beharko dira.

#### **LAUGARRENA:**

Alderdiak onartzen dute, trukatzeko direnak balio bera dutela, eta horren arabera ez zaiola inori inolako saldo gehigarrik sortzen.

#### **BOSGARRENA:**

Trukaketa hau gauzatzeko beste edozein tramitazio osagarria egin beharko balitz, alderdiak egiteko konpromisoa hartzen dute.

Eta hemen jasotakoarekin bat datozela ikusirik, kontratuaren bina ale sinatzen dituzte, ondorio bakar baterako, goian adierazitako leku eta egunean.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez honako hau,

#### **ERABAKI DUTE:**

1.- Aurkeztutako kontratua onartzea, eta halaber sinatzeko ahalmena ematea alkate jauna den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari.

2.- hasierako onarpena ematea jabari publikokoa den Murgiondo baserri ondoko 101,30 m<sup>2</sup>ko azalerako lursaila desafektatzeko prozedura espedienteari, patrimonial izaerakoa bihurtzeko eta bide publikoaren trazadua aldatzeko.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Udal Entitateen Ondasun Erregalamenduko 7 eta 8 artikuluek xedatzen dutenaren arabera, espediente hau jendaurrean jartzea, hilabeteko epea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko udal honetako idazkaritzan.

- **Izfe S.A.rekin laguntza eta aholkularitza teknikoari buruz sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika-zerbitzuak eskaini eta ematen dizkie lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, IZFE S.A. foru sozietate publikoaren bitartez.

IZFE S.A. Estatu Sozialen 3. Artikuluak honek xede sozialtzat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeko eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatzen dute gero udal edo toki-erakunde bakoitzaren eta IZFE S.A.ren arteko berariazko hitzarmenak.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Gipuzkoako Foru Aldunditik lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea proposatzen dela. Honako ezaugarri hauek ditu hitzarmen berriak:

- Lankidetzaren hitzarmen honek IZFE S.A. sozietateak Mutiloako Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira.
- Oro har, IZFE S.A.k konpromisoa hartzen du, egindako informazio-zerbitzuei dagokienez, Mutiloako Udalak eskatzen dizkion informatika, mantentze eta kudeaketarako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko. Halaber, zerbitzu

informatikoen ezarpena bermatuko du Mutiloako Udaleko antolamenduaren egiturako maila guztietan, honen ezaugarri eta behar zehatzen arabera, horretarako erakundeko langileei prestakuntza egokia eskaini beharko direlarik.

- Mutiloako Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatika-zerbitzuak eman eta jasotzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren III. Eranskinean zehazten den gastuak banatzeko sistemaren eta hitzarmen marko horretan azaltzen den jarraipen batzorde betearazleak proposatutako banaketa irizpideen arabera egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin Informatikako lankidetzaren proiektuaren kostuaren %100eko ekarpena mantenduz. Baita ere, ezarrita dauden edo ezarri nahi diren informatika zerbitzuak eta produktuak garatu eta hobetzerazuzendutako jardunetan (informatika egiturak definitzea, irizpideak eta estandarrak finkatzea, aplikazio berriak definitu, garatu eta ezartzea.....) eraginkortasunez laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU :**

#### **BAKARRA:**

Aurkeztutako lankidetzaren hitzarmena onartzea, eta sinatzeko ahalmena Iñaki Ugalde Alustiza alkateari ematea.

- **2022ko urteko jai egun lokalari buruz hartutako erabakia berrestea.**

Udal Osoko Bilkurak berretsi du 2022ko urteko jai egun lokala, 2022ko ekainaren 29an, San Pedro eguna, izendatzeko hartutako erabakia.

- **Errotatxoko proiektuari buruzko esleipenak onartzea.**

Kontuan hartuta, 2021eko aurrekontuan badagoela nahiko kreditua gastu hauei aurre egiteko eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzen direla Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera, aho batez kontratu txiki motako esleipen hauek onartu dira:

**Lana: Errotatxo ingurua paisajistikoki egokitzea.**

Esleipenduna: Ecoengenia (Mercedes Valenzuela); onartutako aurrekontua: 26.572,90 euro (BEZ aparte).

Aurkeztutako beste bi aurrekontu: Erebia enpresa: 28.200 +BEZa.; Bericuetos enpresa 28.786,32 euro (BEZ aparte).

**Lana: Errotatxoko argiterua barne eta kanpoko.**

Esleipenduna: Aizkorpe enpresa: onartutako aurrekontua 8.594,84+BEZ.

Aurkeztutako beste bi aurrekontu: Goiur enpresa: 11.560,00; Sodupe enpresa: 10.501,75.

**Lana: Errotatxoko atzeko harriak garbitzea.**

Esleipenduna: Canterias Donosti; onartutako aurrekontua 4.245,00 euro+BEZ (Aurrekontu bakarra eskatu zen).

**Lana: Errotatxoko kanpoko seinalizazioa.**

Esleipenduna: Serinoski enpresa; onartutako aurrekontua 5.500,00 euro+BEZ (Aurrekontu bakarra eskatu zen).

**Lana: Errotatxoko Proiektu museologiko eta museografikoa.**

Esleipenduna: Ondartez enpresa; onartutako aurrekontua 14.800 euro+BEZ.

Aurkeztutako beste bi aurrekontu: Burulan enpresa: 14.900,00 euro+BEZa; Marijose Sagarduy: 15.200 euro+BEZa.

**Lana: Errotatxoko ehungintza tailerra balioan jartzea.**

Esleipenduna: Ondartez enpresa; onartutako aurrekontua 12.200,00 euro+BEZ.

Aurkeztutako beste bi aurrekontu: Robotito enpresa: 14.000,00 euro+BEZ; Marijose Sagarduy enpresa: 13.200,00 euro+BEZ.



- **Baserri bideak egokitzeko lanen esleipena onartzea.**

Kontuan hartuta, 2021eko aurrekontuan badagoela nahiko kreditua gastu hauei aurre egiteko eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzen direla Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera, aho batez kontratu txiki motako esleipen hauek onartu dira:

**Lana:** Agirieta, Izagirre, Mendizabal, Urteaga baserrietarako bideak egokitze lanak.

Esleipenduna: Artetxe enpresa; onartutako aurrekontua 26.045,00 euro+BEZ (aurrekontu bakarra aurkeztu zen).

- **Troi meategiko sarreraren segurtasuna bermatzeko lanen esleipena onartzea.**

**Lana:** Troi meategiko sarreraren segurtasuna bermatzeko lanen esleipena onartzea (baita kontratu txikia motakoa).

Esleipenduna: TRABAJOS ESPECIALES ZUT S.A.; onartutako aurrekontua 20.570,00 euro BEZ BARNE (nahiz eta 3 eskatu aurrekontu bakarra aurkeztu zen). Lan honen jarraipen teknikoa egiteko esleitu zaio Cesar Monedero Fustel enpresari: 1.800,00+BEZ. Prezioan.

Azkenik, **adarrak eta belarra pilatzeko bi gune prestatzeko lana** Kimu bat enpresari esleitu zitzaion 3.228,00 euro+BEZ prezioan, Hemen beste aurrekontu bat zegoen merkeagoa 3.005,50 eurokoa +BEZ, baina kontsideratu zen onartutakoa hobea zela (baita kontratu txikia motakoa da).

- **Jarduera fisikoa sustatzeko diru laguntza eskaera egiteko proiektua onartzea.**

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Tokian Tokiko parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan garatzen diren osasun-sustapeneko 2021 ekitaldian jarduketak egiteko diru laguntza programaren deialdia

argitaratu dela, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU :**

#### **BAKARRA:**

Honako proiektu hauek aurkeztea:

- Pilotalekuaren aurrekaldean oinezko eta bizikletazalentsat gune bat prestatzea; Gerriko auzoan zartatuta dagoen bide berdea konpontzea; Mutiloa-Ormaiztegi bide berdean Lierniko zubia irisgarri egitea.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Honako hau da aurkeztu den zerrenda, argitu da presa kontua dela eta, batzuk Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez bideratu ondoren dagoeneko ordainduta daudela:

|   |           |
|---|-----------|
| 25/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA: |           |
| LAKIOLA IÑATELL S.L.U.                              | 4.187,71  |
| GOITU ERAIKUNTZAK S.L.                              | 34.670,93 |
| ZUZENEAN UDAL OSOKO BILKURARA AURKEZTEN DIRENAK:    |           |
| GOIUR   | 4.044,40  |
| HITZARO EUSKARA ELKARTEA (BI FAKTURA)               | 6.707,50  |
| CANTERIAS DONOSTI                                   | 14.361,50 |

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.